

# Euskal ekonomia-aren garapena 2018IH

2018ko ekainaren 5a



kutxabank  
empresas

1

**Laburpena**

2

**Euskal ekonomia**

BPGd

Barne eskaria

Kanpo sektorea

Lan-merkatua

Inflazioa

Sektore publikoa

Finantza-sektorea

Adierazleak

3

**Ingurunea**

4

**Aurreikuspenak**

## 2. 2018IHn, euskal ekonomiak bere hazkunde-faseari eutsi dio

18IHn EAEko **BPGd**-a % 3,1 (u/u) hazi da eta, horrela, azken hiruhilekoetako hedapen-faseak aurrera jarraitu du. Datu horrek Esapiniako ekonomiaren aurrerapenaren gainera jarri du (% 3), eta nabarmen gainditu du, halaber, Euroguneko batez bestekoa. Aurreikuspenen arabera, ekitaldi honetan BPGd-ak % 2,6 egingo du gora, eta % 2,2 2019an.

Euskal BPGd-aren hazkunde-erritmo biziak (**BPGd +% 3,1**) **barne-eskaria (+% 3,0)** dauka oinarri, eta bertan nabarmentzekoak dira **Kapitalaren Eraketa Gordinaren** sendotasuna (**+% 3,7**) eta **Kontsumo Pribatuaren mantentzea (+% 2,9)**. Kanpo-sektore dinamikoa merkatuen eta nazioarteko merkataritzaren transakzioen une onaren erakusgarri da. Aurrerapausoak eman dira hala **Esportazioetan (+% 6,5)** nola **Inportazioetan (+% 6,2)**. Bien konbinazioak hamarren bateko ekarpena egin dio igoera orokorrari.

**Eskaintzatik** egindako hurbilketak giltzarri diren sektore guztietan aurrerapenak eman direla erakusten du: **Industria (% 3,7)**, **Eraikuntza (% 2,7)** eta **Zerbitzuak (% 3,1)**, euskal ekonomiak uneotan bizi duen berreskuratze-fasearen isla garbia, non lehen sektorea besterik ez den hedapen honetatik aparte geratu.



**18IHn, lan-okupazioa 947.600 enplegutik** gora dago, % 2,2 hazi ondoren. Termino absolutuetan, nabarmena izan da hazkundera: **duela urtebete baino 20.307 langile gehiago**. Zerbitzuen sektoreak 15.476 enplegu berri sortu ditu, Industriak 3.277 pertsona gehiagori eman die lana eta Eraikuntzak beste 1.607 langileri. **PR**aren arabera, **langabezia**-tasa 124.904 langaberaino jaitsi zen, hau da, % 11,3ko langabezia-tasa. **GS**ren **afiliazioa** 945.514 pertsonakoa izan zen urtarrilean, iaz baino 18.969 gehiago, **% 2,0** hazi ondoren.

**Apirileko** prezioen indizea % 1era erori da; **azpiko inflazioa apur bat beherago dabil (% 0,8)**; eta **biak apalduz doaz**. EAEko prezioen gaineko urte arteko pultsio txikiago hau ia sektore guztietan dago presente. Hala ere, urteak aurrera egin ahala, litekeena da erregaien prezioetan emango diren aldaketek prezioak gorantz bultzatzea.

2017ko abendura arte metatutako **diru-bilketa** errekorren ondoren (**14.473M€, +% 11,8**), 2018ko apirilera arteko hazkundera % 8koa izan da.


## 2. Hazkunde jarraitua

### EAEko BPGd-aren bariazio-tasa (%)



18IHn EAEko **BPGd**-a % **3,1** (u/u) hazi da eta, horrela, azken hiruhilekoetan ikusitako hedapen-faseak aurrera jarraitu du. Datu horrek Espainiako ekonomiaren aurrerapenaren gaintik jarri du (% 3), eta nabarmen gaintitu du, halaber, Euroguneko batez bestekoa. Aurreikuspenen arabera, ekitaldi honetan BPGd-ak % 2,6 egingo du gora, eta % 2,2 2019an.


## 2. EAE: Inbertsioak eta kanpo-sektorea dira hiruhileko jardueraren bultzatzaileak



Iturria: Eustat, gure datuak

Euskal BPGd-aren hazkunde-eritmo biziaren jatorria (BPGd +% 3,1) **barne-eskaria** (+% 3,0) da, eta bertan nabarmentzekoak dira **Kapitalaren Eraketa Gordinaren** sendotasuna (+% 3,7) eta **Kontsumo Pribatuaren mantentzea** (+% 2,9). Kanpo-sektorea, bere dinamismo handiarekin, merkatuen eta nazioarteko merkataritzaren transakzioen une onaren erakusgarri da. Aurrerapausoak eman dira hala **Esportazioetan** (+% 6,5) nola **Inportazioetan** (+% 6,2). Bien konbinazioak hamarren bateko ekarpena egin dio igoera orokorrari.


## 2. Industrian, Eraikuntzan eta Zerbitzuetan emandako hazkundera da hiruhilekoaren portaera onaren erantzulea



Iturria: Eustat, gure datuak

Eskaintzaren arlotik begiratuta, aurrerapen argia ikus daiteke giltzarri diren sektore guztietan, **Industria (% 3,7), Eraikuntza (% 2,7) eta Zerbitzuak (% 3,1)**, euskal ekonomiak uneotan bizi duen berreskuratze-fasearen isla garbia, non lehen sektorea besterik ez den hedapen honetatik aparte geratu.

## 2. Inbertsio handiagoa eta kontsumoaren mailari eustea



PIB Trimestral (demanda)	2016	2017				2018
	IV	I	II	III	IV	I
GASTO EN CONSUMO FINAL	2,9	2,9	2,6	2,9	2,8	2,8
-Gasto en consumo final de los hogares e ISFLSH	2,9	3,0	3,0	3,0	2,8	2,9
-Gasto en consumo final de las AAPP	3,0	2,6	1,2	2,7	2,9	2,6
FORMACIÓN BRUTA DE CAPITAL	3,2	3,0	3,2	3,9	3,8	3,7
-Formación Bruta de Capital Fijo en Bienes de Equipo	6,6	4,2	5,4	4,5	4,6	4,8
-Resto de Formación Bruta de Capital	1,6	2,2	1,9	3,5	3,4	3,0
DEMANDA INTERNA	3,0	2,9	2,7	3,1	3,1	3,0
EXPORTACIONES DE BIENES Y SERVICIOS	0,3	1,5	1,9	3,7	4,8	6,5
IMPORTACIONES DE BIENES Y SERVICIOS	0,4	1,9	1,8	3,9	4,8	6,2
<b>PRODUCTO INTERIOR BRUTO a precios de mercado</b>	<b>2,9</b>	<b>2,8</b>	<b>2,9</b>	<b>3,0</b>	<b>3,0</b>	<b>3,1</b>

**Barne-eskaeraren** dinamismoa dago hazkundearen atzean, eta **Kapitalaren Eraketa gordinaren (% 3,7)** portaera onarekin zerikusi zuzena dauka. Atal horren barruan, Ekipo-ondasunen bilakaera bereziki positiboa izan da (% 4,8), eta kanpo-merkatuen protagonismoa, aldiz, handia. Esportazioek nahiz inportazioek azken 5 hiruhilekoetako aldaketa-tasarik handienak bizi izan dituzte, eta horren ondorioz, 0,1pp-ren ekarpen positiboa egin diote hiruhileko hazkunde orokorrari.

## 2. Kanpo sektorearen errekorrak







Iturria: Eustat

**Kanpo-sektoreak hazkunde-tasaren marka denak hautsi ditu (esportazioak +% 6,5; inportazioak +% 6,2).** Aurrerapauso hauen atzean osagai hauek aurkituko ditugu: lehiakortasunean eman diren aurrerapenak, enpresarioen konfiantzaren berreskurapena, maila historikoetara heldu dena, eta inbertsioak eta proiektuak finantzatzeko baldintza onak mantentzea. Halaber, gertakari hau munduko merkataritzaren hedapen-fase baten barruan dago.



## 2. Industria eta Zerbitzuak, gora




Iturria: Eustat


**Zerbitzuek** igoera nabarmenak izan dituzte, eta 18IHn % **3,1**ekoa izan da igoera; horri **Industriaren** aurrerapausoa gehitu behar zaio (% **3,7**), non eskariek eta negozio kopuruak bi digituko igoera izan duten, enpresen konfiantzaren aldeko bilakaera batekin batera.

## 2. Euskal ekonomiaren hirugarren sektorerako joera handiagoa da, eta Zerbitzuak dira protagonista nagusiak

### Estructura y Variación PIB18 (%)




### Aportación al PIB 1T18 (pp)



Iturria: Eustat, gure datuak


Ekitaldi honetako lehenengo hiruhilekoan, Zerbitzuen sektoreak EAEko BPGd-aren osieran bere pisua handitu du, % **63**raino, % **3,1**eko hazkunde nominalarekin. Horrenbestez, euskal BPGd-aren hazkundeari egindako ekarpen sektoriala handiagoa izan da (**2pp**). **Industria** BPGd-aren % 21,3 da, eta % 3,7 egin du aurrera, eta 0,8pp-ko ekarpena egin dio hazkundeari. Ekarpen positiboen artean, **Eraikuntza** ere sartu behar da, BPGd-aren % 5,3 izanda, % 2,7 egin du gora eta **0,1pp**-ko ekarpena egin du.

## 2. Lan-merkatuaren berreskurapenak ez du etenik



17IHn baino 20.307 langile gehiago

**Puestos de trabajo equivalentes a tiempo completo**




Iturria: Kontu ekonomikoak. Eustat.

Kontu Ekonomikoen arabera, **18IHn lan-okupazioak 947.600 enpleguak** gainditu ditu, % 2,2 hazi ondoren. Termino absolutuetan, nabarmena izan da hazkundera: duela urtebete baino 20.307 langile gehiagorekin. Zerbitzuen sektoreak 15.476 enplegu berri sortu ditu, Industriak 3.277 pertsona gehiagori eman die lana eta Eraikuntzak beste 1.607 langileri. **PR**aren arabera, 18IHn, **langabezia**-tasa 124.904 langaberaino jaitsi zen, hau da, **% 11,3**.


**GS**ren afiliazioa 945.514 pertsonakoa izan zen urtarrilean, iaz baino 18.969 gehiago, **% 2,0** hazi ondoren.

## 2. Presiorik gabe prezioetan eta egonkortasuna azpiko inflazioan

### Inflazioa sektoreka





### EAE: Inflazioaren bilakaera



Iturria: Ikerbide

**Apirileko** prezioen indizea % **1era** erori da; **azpiko inflazioa apur bat beherago dabil (% 0,8); eta biak apalduz doaz.**EAEko prezioen gaineko urte arteko pulstio txikiago hau ia sektore guztietan dago presente. Hala ere, urteak aurrera egin ahala, litekeena da erregaien prezioetan emango diren aldaketek prezioak gorantz bultzatzea.

## 2. Sektore Publikoa: finantzaketa gaitasun handia



2017ko abendura arte metatutako **diru-bilketa** errekorraren ondoren (**14.473M€, +% 11,8**), 2018ko apirilera arteko hazkundera % 8koa izan da.

Guztizko zenbatekotik (4.442M€) 1.823M€ PFEZri dagozkie eta 183M€ Sozietateen Gaineko Zergari, zuzeneko zergen arloan. BEZarekin 1.905M€ bildu dira, eta 412M€ hidrokarburoen gaineko zergarekin.


EAEko **zor-maila % 14,1**raino jaitsi da.

Finantzaketa gaitasunari begira, euskal sektore publikoak 1,074M euroko superabita izan zuen 17IVHko itxieran.


## 2. Gordailu pribatuen berreskurapena, eta kreditua uzurtze fasean oraindik

Txostenaren itxieran BdEk argitaratutako azken datuak: 2017ko abendua

### S. Pribatuaren kredituak



### S. Pribatuaren gordailuak




Desapalankatze prozesu biziak aurrera darrai, eta, ondorioz, kreditu-eragiketa berriak, hazi ez badira ere, ez dira amortizatutako mailegu pribatuen kopuru osora iritsi eta horrek isla izan du **sektore pribatuaren kredituaren** azken saldoaren uzurtzean (-% 0,5 EAEn eta -% 1,9 Spainian).

**Sektore pribatuaren gordailuen** saldo osoa, bestalde, nabarmen hazi da EAEn (% 4,4) eta pixka bat apalago merkatu osoan (% 1,0).

## 2. Gordailu eta kreditu pribatuen hazkunde positiboa

Txostenaren itxieran BdEk argitaratutako azken datuak: 2017ko abendua



### S. Pribatuaren Kredituen eta Gordailuen bariazioaren %



Iturria: BdE

**Sektore pribatuaren gordailuen saldoa (76.435 M€) kreditu pribatuen saldoaren gainera zegoen (64.250 M€), 12.185 M€ gainera hain zuzen ere. Kreditu pribatuek gordailu pribatuetan duten pisua % 84an kokatu da EAEn (% 104,6 Espainian).**

## 2. Etxebizitza-hipotekak: gorabeheratsu




Iturria: INE

Hipoteka-merkatuak ibilbide gorabeheratsua dauka; EAEn, biziberritu eta nabarmen gora egin ondoren **otsailean**, uzurtu egin da **martxoan**, -% 27,3ko murrizketekin bolumenean eta -% 33,4koa hipoteka-eragiketen kopuruan, Espainiako hurrenez hurreneko -% 0,8 eta -% 5,2aren gainerik.



### 3. Berankortasuna. Zuzentze bidean

#### Estaldura eta berankortasunaren bilakaera




2018ko martxoko EFCen OSR berankortasun-tasa % 6,8an kokatu da; urteko jaitsiera, beraz, - 2,03pp-koa izan da eta -0,29pp-koa azken hiruhilekoan.

Finantza-sistemaren OSR kredituaren estaldura-tasa, aldiz, azken hilean 1,68 pp murriztu da, eta % 63,3an dago orain.


## 2. Euskal ekonomia uneko adierazleen arabera...

MENSUALES	dic-17	ene-18	feb-18	mar-18	abr-18
<a href="#">IPI (Eustat)</a>	6,3	3,3	3,5	3,6	
<a href="#">Consumo de gasolina , gasóleo y fuelóleo™ (Cores)</a>	6,7	7,5	2,8	14,1	
<a href="#">Matriculación de turismos (Ikerbide 1.25.3)</a>	1,8	21,4	15,4	3,1	18,5
<a href="#">Hipotecas. Número (INE)</a>	-15,3	1,3	26,2	-33,4	
<a href="#">Hipotecas. Importe (INE)</a>	-16,8	10,5	37,9	-27,3	
<a href="#">Compraventa viviendas</a>	-5,4	21,2	20,3	16,2	
<a href="#">Recaudación DDFF: Total impuestos (GV)</a>	11,8	13,0	8,6	9,6	8,0


IPI




Recaudación: Impuestos concertados




Matriculación vehículos



Consumo gasolina, gasóleo y fuelóleo



### 3. Euskal ekonomia. 2018rako aurreikuspenak



Iturria: INE, Eustat eta gure datuak

Euskal ekonomiak hazkunde-bideari eutsi dio 18IHn, eta bere BPGd-ak % **3,1** egin du gora, Espainiako ekonomiaren erregistroaren gainerik. 2018ko ekitaldi osoari begira, hazkundeak moteltzera egingo du, eta % 2,6an kokatuko da (espainiar ekonomiarako aurreikusita dagoena: % **2,7**).

### 3. Euskal ekonomia. 2018rako aurreikuspenak

<b>Euskadi</b>	<b>PIB</b>		
<b>Panel de Previsiones</b>		<b>2018</b>	<b>2019</b>
<b>Confebask</b>	may.-18	2,9	
<b>Funcas</b>	may.-18	2,7	
<b>Hispalink (VAB)</b>	may.-18	2,2	2,3
<b>BBVA</b>	may.-18	3,1	2,8
<b>CEPREDE</b>	may.-18	2,4	2,1
<b>Gobierno Vasco</b>	may.-18	2,6	2,2
<b>Media</b>		<b>2,7</b>	<b>2,4</b>
<i>Máximo</i>		<i>3,1</i>	<i>2,8</i>
<i>Mínimo</i>		<i>2,2</i>	<i>2,1</i>

## 4. Ingurunea: hazkunde sendoa

### Munduko ekonomiaren aukerak, 2018ko apirileko NDFren aurreikuspenak

	2017	2018	2019
<b>Producto Mundial</b>	3,8	3,9	3,9
<b>Economías avanzadas</b>	2,3	2,5	2,2
Estados Unidos	2,3	2,9	2,7
Zona del euro	2,3	2,4	2,0
Alemania	2,5	2,5	2,0
Francia	1,8	2,1	2,0
Italia	1,5	1,5	1,1
España	3,1	2,8	2,2
Japón	1,7	1,2	0,9
Reino Unido	1,8	1,6	1,5
<b>Economías emergentes y en desarrollo</b>	4,8	4,9	5,1
<b>Volumen del comercio mundial (b y s)</b>	4,9	5,1	4,7
<b>Petróleo</b>	23,3	18,0	-6,5
<b>Precios al consumidor</b>			
<i>Avanzadas</i>	1,7	2,0	1,9
<i>Emergentes y en desarrollo</i>	4,0	4,6	4,3

[2018ko apirileko NDFren aurreikuspenak](#)

NDFren apirileko aurreikuspenek **hazkunde ekonomikoaren sendotasuna** utzi dute agerian, **2017ko % 3,8ko** igoeraren ondoren. **Datozen bi ekitaldietan, hazkundera % 3,9koa** izatea aurreikusten da, eta une horretatik aurrera, datuek apaltzera joko dute. Zehatzago, 2018rako aurreikuspenak aldekoak dira, hazkunde-tasekin hala ekonomia aurreratuetan nola gorakorretan, 2019ra arteko bidea egingo dutenak. Munduko merkataritzan aurreikusitako hazkundera nabarmendu behar da, 2018an % 5,1ekoa izango dena.

## 4. Munduko merkataritza eta hazkundearen hedapena

Munduko ekonomiaren hazkundera +% 4,0koa izan da ekonomia garatuetako barne-eskariak eta gorakorren biziberritzeak bultzatuta, nazioarteko merkataritza berriro suspertzen ari den testuinguruan.

Banku zentralak diru-politika pixkanaka doitzen hasi dira. Herrialde gorakorrek lehengaien prezioen igoeraren, nazioarteko merkataritzaren berraktibazioaren eta dolarraren ahultasunaren abaroan ari dira aurrera egiten.

### BPGd. Ald % ELGE (u/u)

	Average 2010-2017	2016	2017	2018	2019
		Per cent			
<b>Real GDP growth<sup>1</sup></b>					
World <sup>2</sup>	3.5	3.1	3.7	3.8	3.9
G20 <sup>2</sup>	3.7	3.2	3.8	4.0	4.1
OECD <sup>2,6</sup>	2.0	1.8	2.5	2.6	2.5
United States	2.1	1.5	2.3	2.9	2.8
Euro area <sup>6</sup>	1.1	1.7	2.5	2.2	2.1
Japan	1.1	1.0	1.7	1.2	1.2
Non-OECD <sup>2</sup>	4.8	4.2	4.6	4.8	5.1
China	7.6	6.7	6.9	6.7	6.4
India <sup>3</sup>	6.8	7.1	6.5	7.4	7.5
Brazil	0.4	-3.5	1.0	2.0	2.8
<b>Output gap<sup>4</sup></b>	-2.0	-1.5	-0.7	0.1	0.6
<b>Unemployment rate<sup>5</sup></b>	7.3	6.3	5.8	5.4	5.1

Iturria: ELGE

## Espainiar ekonomia

2018an, Espainiako ekonomia Europako ekonomia nagusien gainera dago oraindik hazkundera, barne-eskariaren eta kanpoko merkatuen bultzadari esker. **18IHn, BPGd-aren hazkundera % 3koa izan da.** ELGEren arabera, finantzaketa-baldintza onak eta enpleguaren sorrerak ez dute etenik izango, eta barne-eskariaren indarra bere horretan mantenduko da. Kanpo-sektoreak ekarpen positiboa egingo dio hazkunderari, inflazioa maila apaletan mantenduko da, eta langabezia handia izango da.

Berreskurapen-aldia luzatu ahala, defizit publikoak pisu espezifikoak galduko du BPGd-aren aldean. Hala ere, aurreikustekoa da Egonkortasun eta Hazkunde Itunak zehaztutako gehieneko mugak ez direla aurrerantzean ere beteko.

## 4. Eurogunea: gorantz

### Zona Euro. Previsiones de crecimiento económico comparado 2017-2019P

#### Crecimiento PIB (previsión; a/a)


	Fecha previsión	2017	2018P	2019P
Previsiones BCE (punto medio)	may-18	2,5	2,2	1,9
OCDE	may-18	2,4	2,2	1,9
Comisión UE	may-18	2,4	2,3	2
FMI	abr-18	2,3	2,4	2
Consensus	may-18		2,3	1,9

Consensus Economics, ECB, EU Commission, IMF, OECD

Fuente Citivelocity. mayo 2018

### BPGd-aren hazkundera Spainian




BPGd % 3,0 u/u 2018IHn



**Euroguneak** tonua berreskuratu du, BPGd-aren % **2,4**ko igoerarekin, kontsumo pribatu sendoan oinarrituta, eta esportazioen eta inbertsioen protagonismo handiagoarekin. Horri guztiari defizit publikoaren murrizketa handiagoa gehitu behar zaio, lan-merkatuaren portaera hobekuntzara batera, langabezia krisiaren aurreko mailalara eraman duena. Hala ere, bertan diraute zeinbat kanpo arriskuk, hautemangarriago eta negatiboago.

Spainian, 18IHn, **BPGd-ak % 3,0 egin du gora**, eta azken laurtekoaren hazkunde-joerari eutsi dio. Hazkundera mantentzea aurreikusten da, baina modu apalagoan. Langabezia-tasa % 16,5era jaitsi da, enpresen eta familien ondare-hobekuntzekin, eta, beraz, zorpetze eta finantza-zamaren maila apalagoekin.

## 4. Aurreikuspenak. Dezelerazio moderatua



Iturria: Funcas

**BPGd-aren hazkundearen batez besteko aurreikuspena % 2,8**raino igo da 2018rako, eta % 2,4an mantendu 2019rako. Bultzada hori eskari nazionaletik etorriko da hein handi batean (2,5pp), eta kanpoko saldoa positiboa izango da (0,3pp).

AEBek Iranekin zuten hitzarmena bertan behera utzi ondoren sortu diren gorabeheren ondorioz petrolioaren prezioak gora egin duen arren (80 \$/upela mailaraino), **inflazioaren** urteko batez besteko tasa ez da askorik igo apirilera arte; 2018rako aurreikuspena % 1,5ean mantentzen da, eta datorren urterako % 1,6koa da.

**Defizit publikoak** BPGd-aren % 3,1arekin itxi zuen 2017a, eta 2018an % 2,5eraino jaistera aurreikusita dago, helburu duen defizit-maila gutxigatik bete gabe.



## 4. Aurreikuspenen panela. Espainia

Última actualización

may-18

**España**

Panel de Previsiones	PIB		IPC		PARO (EPA)	
	2018	2019	2018	2019	2018	2019
<b>AFI</b>	2,8	2,3	1,5	1,7	15,1	13,6
<b>BBVA</b>	2,9	2,5	1,5	1,6	15,3	13,7
<b>Bankia</b>	2,9	2,3	1,5	1,8	15,3	13,9
<b>Caixabank</b>	2,8	2,4	1,6	2,0	15,5	13,7
<b>CEEM</b>	2,7	2,3	1,5	1,6	15,0	13,3
<b>CEPREDE</b>	2,7	2,4	1,8	1,6	15,5	14,1
<b>CEOE</b>	2,8	2,6	1,4	1,3	15,1	13,1
<b>Funcas</b>	2,8	2,4	1,5	1,5	15,1	13,2
<b>ICAE-UCM</b>	2,8	2,7	1,6	1,6	15,2	13,6
<b>IEE</b>	2,8	2,3	1,5	1,2	15,8	14,7
<b>Intermoney</b>	2,8	2,4	1,5	1,6	15,2	13,5
<b>CONSENSO (media)</b>	<b>2,8</b>	<b>2,4</b>	<b>1,5</b>	<b>1,6</b>	<b>15,3</b>	<b>13,6</b>
Máximo	2,9	2,7	1,8	2,0	15,8	14,7
Mínimo	2,6	2,3	1,3	1,2	14,9	12,6
<b>PRO MEMORIA</b>						
Gobierno (abril 17)	2,7	2,4	-	-	15,5	13,8
BdE (marzo 18)	2,7	2,3	1,2	1,4	15,1	13,3
CE (mayo 18)	2,9	2,4	1,4	1,4	15,3	13,8
FMI (abril18)	2,8	2,2	1,7	1,6	15,5	14,8
OCDE (noviembre 17)	2,3	2,1	1,3	1,6	15,4	14,0

Fuente: funcas

# Euskal ekonomia-aren garapena 2018IH

2018ko ekainaren 5a



kutxabank  
empresas